

ZIZURKILGO UDALA

OHIKO OSOKO BILKURARAKO DEIA

Honen bidez, Ohiko Osoko Bilkurara deitzen dizut:

Eguna: **2019ko maiatzaren 23a, osteguna**

Ordua: **19:30**

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

CONVOCATORIA A PLENO ORDINARIO

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Ordinario a celebrar:

Día: **23 de Mayo de 2.019, jueves**

Hora: **19:30**

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

EGUNeko AZTERGAIAK

1.- AURREKO UDALBATZARRAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2019.04.29).

2.- IRIARTE ETXEKO TABERNA-JATETXEAREN USTIAPEN KONTRATUAAREN LUZAPENA ONARPENA.

3.- LANPOSTUEN ZERRENDAN ALDAKETA BATZUK ONARTZEA.

4.- 2019ko BERDINTASUN PLANA ONARTZEA

5.- EH BILDUREN MOZIOA, JOSE ARANA IRASTORZAREN OROIMENEZ JARRITAKO PLAKAREN DESAGERPENARI BURUZ.

6.- ALKATEAREN DEKRETUAk JAKINARAZTEA (108/2019tik 127/2019ra).

7.- GALDE-ESKAKIZUNAK.


Zizurkilen, 2019ko maiatzaren 20an

Alkatea.



Zizurkil, 20 de Mayo de 2019

El Alcalde.



ZIZURKILGO UDALA

**2019ko MAIATZAREN 23an EGINDAKO
OHIKO BILKURAKO AKTA**

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA
CELEBRADA EL DIA 23 DE MAYO DE
2.019**

Partaideak/ Señores Asistentes:

ALKATEA/ALCALDE:

José María Luengo Zapirain Jauna (EH Bildu)

ZINEGOTZIAK/CONCEJALES:

Maite Amenabar Alkorta (EH Bildu)

Arkaitz Zaldua Jauregi (EH Bildu)

Eva Usandizaga Mujika (EH Bildu)

María Angeles Lazcano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.)

Jesús María Alkorta Etxezarreta (E.A.J.-P.N.V.)

José Antonio Sánchez Almaraz (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak)

Aitor Sarasua Arruti (EH Bildu)

Jon Ander Esnaola Arruti (EH Bildu)

IDAZKARIA /SECRETARIO:

José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hemeretziko maiatzaren hogeita hiruko hemeretzi orduak eta hogeitamar minutuak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren zinegotzien partaidetzarekin. Nuria Martín Ibán (E.A.J.-P.N.V.) eta Olga Aldaz Carretero (E.A.J.-P.N.V.) zinegotziak ez dira etorri.

Lehendakaritzaren aginduz bilkura hasi da eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela legez ezarritako quoruma bertan dagoelako.

**1.- AURREKO UDALBATZARRAREN
AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA
(2019.04.29).**


Udalatzak, aho batez erabaki du 2019ko apirilaren 29an egindako Bilkuren Aktak onartzea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las diecinueve horas y treinta minutos del día veintitrés de Mayo de dos mil diecinueve, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia del Señor Alcalde y con la asistencia de los Señores Concejales que arriba se citan, no asistiendo los concejales Nuria Martín Ibán (E.A.J.-P.N.V.) y Olga Aldaz Carretero (E.A.J.-P.N.V.).

Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

**1.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL
ACTA DEL PLENO ANTERIOR
(29.04.2019).**

La Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar el Acta del Pleno celebrado el día 29 de Abril de 2.019



ZIZURKILGO UDALA

2.- IRIARTE ETXEKO JATETXEAREN KONTRATUAAREN ONARPENA.

Kontuan hartuta datorren abuztuaren 9an amaituko dela Izaskun Aizpurua Ipinza andreatsi Iriarte Herri Etxea Taberna-Jatetxearen ustiapena esleitzeko 10 urteko epea.

Esleipena arautu zuen baldintza ekonomiko-administratiboen agiriko 4. klausulan honako aukera hau dago jasota: *"Esleipena beste diez (10) urterako luza daiteke, bi aldeek berariaz hala adosten badute, bai Udalak, bai esleipendunak ere".*

Jarduerak ondo funtzionatzen duenez, eta Zizurkil Goiko bizitza sozialerako mesedegarria denez, esleipendunarekin hala adostuta, proposatzen da aipatutako 4. klausula aplikatzea eta esleipena beste hamar urterako luzatzea, hain zuzen, 2029ko abuztuaren 9ra arte.

Halaber, eta esleipendunarekin hala adostuta, proposatu da gaur egungo 57,03 euroko hileko kanona eguneratzea, eta 202,40 euroa igotzea.

E.A.J.-P.N.V.k adierazi du bat datorrela 4. artikulua aplikatzearekin, eta esleipendun berari kontratua beste 10 urterako luzatzearekin, baina ez zaio egokia iruditu hileko kanona zehazteko modua, ez da ere Atxulondo Tabernan ordaintzen ari diren kuota bera jartzea. Hoprregatik gaia Mahai gainean uztea eskatzen dute, eta udal-ustiapenak esleitzeko irizpide bat bilatzea, hemendik gutxira esleitu beharko baita Plaza Etxeberri Taberna ere.

S.V.–E.S. taldea ere ez dago ados Atxulondo Tabernaren esleipena erreferentzia gisa erabiltzearekin, lokalaren alokairuaren kanon gisa hileko kopuru bat izendatzeko. Neurriz kanpoko iruditzen zaio, erreferentzia-puntuarekin

2.- APROBACION DE LA PRORROGA DEL CONTRATO DE EXPLOTACION DEL BAR-RESTAURANTE DE IRIARTE ETXEA.

El Alcalde informe que el próximo día 9 de Agosto finaliza el período de 10 años de la adjudicación de la explotación del Bar-Restaurante de Iriarte Herri Etxea a Doña Izaskun Aizpurua Ipinza.


En la cláusula 4^a del Pliego de condiciones económico-administrativas que rigió dicha adjudicación, se prevé la posibilidad de que *"La concesión puede ser prorrogada por otros diez (10) años, previo acuerdo expreso de ambas partes: Ayuntamiento y adjudicatario"*.

Dado el buen funcionamiento que tiene la actividad y lo que supone su mantenimiento para la vida social de Zizurkil Goia, y de común acuerdo con la adjudicataria, se propone aplicar la mencionada cláusula 4^a y prorrogar por otros diez años la adjudicación, concretamente hasta el 9 de Agosto de 2.029

Así mismo, y también de y de común acuerdo con la adjudicataria, se propone actualizar el actual canon mensual de 57,03 euros y fijarlo en 202,40 euros.

E.A.J.-P.N.V. plantea que estando de acuerdo en la aplicación del artículo 4 y prorrogar por otros 10 años la adjudicación al mismo adjudicatario, no le parece adecuada la forma de decidir el canon mensual, ni la de fijar una nueva cuota idéntica a la que pagan en el Bar de Atxulondo, por ello solicitan dejar el tema encima de la Mesa y buscar un criterio para la adjudicación de las distintas explotaciones municipales, puesto que enseguida habrá que adjudicar también el del Bar de Plaza Etxeberri.

También S.V. – E.S. muestra su disconformidad con la propuesta de utilizar la concesión del Bar de Atxulondo como referencia para asignar una cantidad mensual en concepto de canon por el alquiler del local, puesto que lo considera desproporcionado con el punto de referencia y



ZIZURKILGO UDALA

alderatuta, eta proposatu du beste aukera proportzionalago bat ezartzea. Horrez gain, gaia Mahai gainean uztea eta hobeto lantza eskatu du, bai eta Udalbatza berria osatzean erabakitzea ere.

Hori guztia ikusirik, udalatzak bozketa egin du, proposamena onartzeko. Emaitza honako hau izanda:

- Aldeko botoak: 6 (6 Bildurenak).
- Kontrako botoak: 0.
- Abstentzioak: 3 (2 EAJ-PNVrenak eta 1 SV- ESrena).

Hortaz, Udalatzaren gehiengoak honako hau erabaki du:

Lehenengoa.- Iriarte Herri Etxea Taberna-Jatetxearen ustiapenaren esleipena beste hamar urtez luzatzea Izaskun Aizpurua Ipinza andreatzi, hain zuzen, 2029ko abuztuaren 9ra arte.

Bigarrena.- Esleipenaren hileko kanona eguneratzea. 2019ko abuztuaren 10etik aurrera, 202,40 euro gehi dagokion BEZA ordaindu beharko du.

Hirugarrena.- Alkate jaunari ahalmena ematea kontratuaren luzapen-dokumentua sinatzeko, erabaki honen berri ematea esleipendunari eta goian aipatutako dokumentua sinatzera deitzea.

E.A.J.-P.N.V. eta S.V.- E.S. alderdiek adierazi dute abstentziora jo dutela, ez dituztelako argi ikusten alkateak esleipena beste hamar urterako luzatzeko garaian ezarriko duen kanon berriaren zenbatekoa zehazteko erabili dituen irizpideak. Halaber, zenbait aukera proposatu dira, baina ez dira aintzat hartu.

3.- LANPOSTUEN ZERRENDAN ALDAKETA BATZUK ONARTZEA.

Alkate Jaunak 2019 urterako Lanpostuen Zerrendaren aldaketa aurkeztu bere onarpenerako. Aldaketa honek lanpostu hauetan du eragina: “5 –

propone alguna opción para que fuese más proporcional. También pide se deje el tema sobre la Mesa para estudiarla mejor y madurarla, y que se decida una vez se haya constituido la nueva Corporación.

A la vista de todo ello, la Corporación pasa a realizar la correspondiente votación para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 6 (6 de Bildu).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 3 (2 de E.A.J.-P.N.V. y 1 de S.V.- E.S.).

Por lo que, el Pleno de la Corporación, por mayoría de votos, acuerda:

Primero.- Prorrogar la adjudicación de la explotación del Bar-Restaurante de Iriarte Herri Etxea a Doña Izaskun Aizpurua Ipinza por otros diez años, concretamente hasta el 9 de Agosto de 2.029


Segundo.- Actualizar el canon mensual de la adjudicación, que a partir del día 10 de Agosto de 2.019 pasará a ser de 202,40 euros más el IVA correspondiente.

Tercero.- Facultar al Señor Alcalde para la firma del documento de prórroga del contrato y comunicar el presente acuerdo a la adjudicataria y citarla para la firma de dicho documento.

E.A.J.-P.N.V. y S.V.- E.S. basan su abstención en el hecho de que no ven nada claros los criterios en los que se basa el Alcalde para establecer el importe del nuevo canon a aplicar en los diez años de prórroga de la adjudicación y por el hecho de que no se han tenido en consideración algunas alternativas planteadas.

3.- APROBACIÓN DE MODIFICACIONES VARIAS EN LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO.

El Señor Alcalde presenta para su aprobación la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo para el ejercicio de 2.019, que afecta a



ZIZURKILGO UDALA

Administrazio izapideak”, “14 - Obra eta Zerbitzuetako arduraduna” eta “16 - Ofizial-Igeltszeroa”.

Aldaketa hau udal-langileen ordezkariarekin negoziatu ondoren, bere adostasuna lortu da.

Ogasun Batzordearen aldeko irizpena ere ikusi da.

Ondoren, aipatutako Lanpostuen Zerrendaren aldaketa onartzeko bozketa egin da. Hau da emaitza:

- Alde: 9 (6 EH Bildurenak, 2 E.A.J.-P.N.V.renak eta 1 S.V.-E.S.rena).
- Aurka: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz, Udalbatzarrak, aho batez, honoko hau erabaki du:

Lehena.- Hasierako onespena ematea 2019 urteko Lanpostuen Zerrendaren aldaketari, Akta honen I Eranskinetan jasotzen dena. Erabaki honek 2019ko otsailaren 1etik aurrera izango ditu atzeraeraginezko ondorioak.

Bigarrena.- Hamabost eguneko epean jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, interesdunek erreklamazioak aurkeztekotz ekan dezaten.

Hirugarrena.- Erreklamaziorik aurkezten ez badira, behin betiko onartutzat joko da 2019 urteko Lanpostuen Zerrendaren aldaketa hau eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.- 2019KO BERDINTASUN PLANA ONARTZEA

Onartua izan dadin, 2019ko Berdintasun Plana aurkezten da.

Udalbatzak bozketa egin du aurkeztutako proposamenak onartzeko. Hau da emaitza:

los puestos de trabajo: “5 - Trámites administrativos”, “14 - Encargado de obras y servicios” y “16 - Oficial-Albañil”.

Previa negociación con la representación de los trabajadores municipales, esta modificación ha obtenido la conformidad correspondiente.

Visto el dictamen favorable de la Comisión de Hacienda.

Se realiza la votación para la aprobación de la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo, con el siguiente resultado.

- Votos a favor: 9 (6 de EH Bildu, 2 de E.A.J.-P.N.V. y 1 de S.V.-E.S.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por unanimidad, acuerda:

Primero.- Aprobar inicialmente la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo del año 2019, que se refleja en el Anexo I del presente Acta. Este acuerdo tendrá efectos retroactivos a fecha de 1 de Febrero de 2019


Segundo.- Exponer el expediente al público, previo anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, por un periodo de quince días, a fin de que por los interesados puedan formularse reclamaciones.

Tercero.- Esta modificación de la Relación de Puestos de Trabajo del año 2019, se entenderá aprobada definitivamente en el caso de que no se presenten reclamaciones, y será publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

4.- APROBACIÓN DEL PLAN DE IGUALDAD 2.019

Se presenta para su aprobación el Plan de Igualdad 2019

La Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:



ZIZURKILGO UDALA

- Aldeko botoak: 9 (6 EH Bildurenak, 2 E.A.J.-P.N.V.renak eta 1 S.V.-E.S.rena).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz Udalbatzak, aho batez, aurkeztutako 2019ko Berdintasun Plana onartu egiten du.

**5.- EH BILDUREN MOZIOA, JOSE ARANA
IRASTORZAREN OROIMENEZ
JARRITAKO PLAKAREN
DESAGERPENARI BURUZ.**

Akta honen II Eranskinean jasota dago aurkeztutako Mozioa.

Udalbatzak bozketa egin du aurkeztutako proposamenak onartzeko. Hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 9 (6 EH Bildurenak, 2 E.A.J.-P.N.V.renak eta 1 S.V.-E.S.rena).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz Udalbatzak, aho batez, aurkeztutako Mozioa onartu egiten du.

**6.- ALKATEAREN DEKRETUAK
JAKINARAZTEA (108/2019tik 127/2019ra).**

2019ko apirilaren 26tik maiatzak 17ra Alkateak sinatutako 108/2019tik 127/2019ra zenbakia duten Dekretuen berri eman da.

Jatorrizkoak Alkatetzaren Dekretu Liburuan jasota daude eta bertan aztertu daitezke.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

- Votos a favor: 9 (4 de EH Bildu, 2 de E.A.J.-P.N.V y 1 de S.V.- E.S.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar el Plan de Igualdad 2.019

5.- MOCION DE EH BILDU EN RELACIÓN CON LA DESAPARICION DE LA PLACA HOMENAJE A JOSE ARANA IRASTORZA.

La Moción que se presenta se refleja en el Anexo II del presente Acta.

La Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 9 (4 de EH Bildu, 2 de E.A.J.-P.N.V y 1 de S.V.- E.S.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.


Por lo que el Pleno de la Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar la Moción presentada.

6.- COMUNICACION DE DECRETOS DE ALCALDIA (108/2019 al 127/2019).

Se da cuenta del listado de los Decretos nº 108/2019 al 127/2019 firmados por la Alcaldía entre el 26 de Abril y el 17 de Mayo de 2.019

Los originales se conservan y pueden ser examinados en el Libro de Decretos de Alcaldía.

La Corporación se da por enterada.



ZIZURKILGO UDALA


Beste aztergairik gabe, eta hogeい orduak eta hogeい minituak direnean, Batzarra amaitu da eta honetaz guztiak nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

O.I.
ALKATEA.

Vº Bº
EL ALCALDE.



Y sin más asuntos que tratar, y siendo las veinte horas y veinte minutos, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el Secretario, doy fe y certifico.



I ERANSKINA -- ANEXO I

2019ko LANPOSTUEN ZERRENDA (2019.01.29ko erabakia)

ZIZURKILGO UDALA

KARRERAKO FUNTZIONARIOENTZAT GORDETAKO LANPOSTUEN ZERRENDA

Identifikazioa						Eskaturiko baldintzak								
LK	Izena	D	PS	DM	LO	O. Ber.	T	E	AZP	TIT.	Baldintza bereziak	HE	Der. Data.	Oharrak
5	Administrazio izapideak	1	L	1	19	14.520,40	C1	AO	3.0	300		3	2006-06	
14	Obra eta Zerbitzuetako arduraduna	1	L	4	18	23.858,68	C2	AB	5.2	200	C GIDA BAIMENA	2	2001-06	
16	Ofizial-Igeltseroa	1	L	1	14	15.189,08	C2	AB	5.2	200	C GIDA BAIMENA	2	2001-12	

2019ko LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETAK (2019.05.23ko erabakia)

KARRERAKO FUNTZIONARIOENTZAT GORDETAKO LANPOSTUEN ZERRENDA

Identifikazioa						Eskaturiko baldintzak								
LK	Izena	D	PS	DM	LO	O. Ber.	T	E	AZP	TIT.	Baldintza bereziak	HE	Der. Data.	Oharrak
5	Administrazio izapideak	1	L	1	19	16.049,32	C1	AO	3.0	300		3	2006-06	
14	Obra eta Zerbitzuetako arduraduna	1	L	4	18	26.291,60	C2	AB	5.2	200	C GIDA BAIMENA	2	2001-06	
16	Ofizial-Igeltseroa	1	L	1	14	15.948,52	C2	AB	5.2	200	C GIDA BAIMENA	2	2001-12	

RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO DE 2.019 (acuerdo de 29.01.2019)


RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO RESERVADOS A PERSONAL FUNCIONARIO DE CARRERA

Identificación						Requisitos exigidos								
CP	Denominación	D	SP	DE	CD	C. Especif.	G	E	SUB	TIT.	Requisitos específicos	PL	Fecha Prec.	Observaciones
5	Trámites administrativos	1	C	1	19	14.520,40	C1	AG	3.0	300		3	06-2006	
14	Encargado de Obras y Servicios	1	C	4	18	26.291,60	C2	AE	5.2	200	CARNET CONDUCIR C	2	06-2001	
16	Oficial-Albañil	1	C	1	14	15.948,52	C2	AE	5.2	200	CARNET CONDUCIR C	2	12-2001	

MODIFICACION DE RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO DE 2.019 (acuerdo 23.05.2019)

RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO RESERVADOS A PERSONAL FUNCIONARIO DE CARRERA

Identificación						Requisitos exigidos								
CP	Denominación	D	SP	DE	CD	C. Especif.	G	E	SUB	TIT.	Requisitos específicos	PL	Fecha Prec.	Observaciones
5	Trámites administrativos	1	C	1	19	16.049,32	C1	AG	3.0	300		3	06-2006	
14	Encargado de Obras y Servicios	1	C	4	18	23.858,68	C2	AE	5.2	200	CARNET CONDUCIR C	2	06-2001	
16	Oficial-Albañil	1	C	1	14	15.189,08	C2	AE	5.2	200	CARNET CONDUCIR C	2	12-2001	



ZIZURKILGO UDALA

II ERANSKINA -- ANEXO II

ZIZURKILGO UDALA
2019 MAI, 20
SARREREN ERREGISTROA
Zenbakia 564.....

Zizurkilgo Udalak 2018ko uztailean plaka bat ipini zuen Donostiako Polloe hilerrian, Jose Arana Irastorza 1936ko irailaren 17an Zizurkilgo Zarateko Bentan hil zuten Gerra Zibileko EAE-ANVko lehenengo gudaria omentzeko. Plaka ipintzeko ekitaldian izan ziren, besteak beste, Jose Arana zenaren familiartekoak, Gerra Zibileko memoria historikoa berreskuratzeko elkarlanean ari garen Aitzondoko udaletako ordezkariek, Donostiako udal-ordezkar bat, Arantzadi zientzia elkarteko kideak eta bailaran Gerra Zibileko memoria berreskuratzeko antolatzen diren auzolandegietako partaideak.

Gerra Zibileko biktima omentzea eta Jose Aranaren familiartekoei elkartasuna eta atxikimendua adieraztea izan ziren ekintza horren arrazoia. 2019ko Aste Santu aurretik, baina, plaka hori desagertu egin zen Polloeko hilerritik.

Gertaera horren harira, Zizurkilgo Udalak honako adierazpen hau kaleratu nahi du:

- Tamalgarria eta guztiz gaitzesgarria iruditzen zaigu memoria historikoa berreskuratzeko ekintza batekiko begirunerik ez erakustea.
- Elkartasuna eta babesa adierazten diegu bere familiarteko eta lagunei, horrelako ekintzek bizikidetzarako bidea urratzen dutelako.
- Zizurkilgo Udaletik konpromisoa hartzen dugu, azken urteotan egin izan dugun bezala, Arantzadi zientzia elkartarekin eta Aitzondoko gainerako udalekin elkarlanean, Gerra Zibilaren garaiko egia argitara ateratzeko lanean jarraitzeko.
- Mozio honetan onartutako puntuak helaraziko zaizkie bai Arana familiako kideei, bai Gerra Zibileko gertaerak ikertzeko lanetan bidelagun ditugun Aitzondo bailarako gainerako udalei ere.

Zizurkilen, 2019ko maiatzaren 20an